

# VISIONES SAHARAUIS

Gervasio Sánchez

2021eko irailaren 30etik urriaren 24ra
Del 30 de septiembre al 24 de octubre

# SAHARARI BEGIRA

## SARRERA

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) Sahara espainiar deitu izan zen probintziaz osatutako estatua da, zein Marokok eta Mauritaniak legez kontra okupatu baitzuten 1976an, Espainia bertatik erretiratu ondoren. Mundu zabaleko 84 estatuk onartu dute SEAD, baina kopuru hori handiago edo txikiagoa da, zein iturri kontsultatzen den. Afrikako Batasuneko estatu kidea da. Fronte Polisarioa askapen nazionaleko mugimendu bat da, eta Marokoren okupazioaren aurka eta saharar herriaren autodeterminazioaren alde dihardu borrokan. Polisario hitza akronimoa da, eta hauxe esan nahi du: Sakia-el-Hamra eta Rio de Oro Askatzeko Herri Frontearen. Aljeriako hego-mendebaldean dagoen Tinduf probintzian sakabanatutako errefuxiatu-kanpamenduak kudeatzen ditu, baita 2.700 kilometroko harresi batek lurralde okupatuetatik banantzen dituen lurralde liberatuak ere. Errefuxiatu-kanpamenduak Mendebaldeko Saharako hiri okupatuen izenez deitzen dira: Aaiun, Auserd, Smara, Dakhla, Bojador. Kanpamendu bakoitza *wilaya* edo probintzia bat da, eta zenbait *daira* edo udalerrik osatzen dute. Rabuni da hiriburu administratiboa; bertan dira Saharako gobernuaren erbesteko egoitza, hainbat ministerio, protokolo eta zerbitzu publikoen administrazio.

## EGUNEROKO BIZITZA

Saharar gehienak kanpaina-dendetan edo adobezko etxe egituraz oso hauskorretan bizi dira. Ez dute ez ur korronterik, ez argi elektrikorik. Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR, ingelesezko sigletan) eta Elikagaien Mundu Programak ematen dien nazioarteko laguntzaren mende bizi dira. Saharar herriarekiko elkartasun-elkarte eta -GKEek karabana humanitarioen antolatu eta eramaten dituzte errefuxiatuen bizimodua hobetzeko; hala eta guztiz ere, haurren herenak desnutrizio kronikoa pairatzen du. Ilargi Erdi Gorriak nazioarteko lankidetza eta laguntza antolatu eta bideratzen du, eta larrialdi-egoerak artatzen ditu. Haur errefuxiatu guztiak eskolatuta daude.

## DESAGERTUAK

400 saharar inguru desagertu dira 1970eko hamarkadaren hasieratik, gatazka armatuaren eta Marokok kontrolpean dituen herritar zibilen aurkako errepresio politikoaren testuinguruan. 2013ko ekainean zenbait mediku forentsek osatutako lantalde batek bi hobi komun aurkitu zituen basamortuan. Exekuzio estrajudizialen biktimak ziren, 1976ko otsailean hilak. Horra azken lau hamarkadetan aurkitutako lehen desagertuak... 1999an Marokoko gobernuak 43 saharar atxilotzerakoan hil zirela onartu zuen. 2010eko abenduan, Marokoko Giza Eskubideen aldeko Aholku Kontseiluak txosten bat argitaratu zuen Interneten, desagertutako 207 kasu aipatuz; hildakotzat jo zituen, “espetxeratzearen baldintzen ondorioz”, “sufrimenduen artean” edo “borroka militarretan”. Saharako Preso eta Desagertuen Senideen Elkartearen (AFAPREDESA) arabera, emandako informazio horiek mugatuak, zatikatuak eta zehaztugabeak izan ziren. Ez zuten argitzen biktimen gorpuak non zeuden. Bortxazko desagertzea gizateriaren aurkako krimena da, delitu iraunkorra.

## MINEN BIKTIMAK

Mendebaldeko Saharen Erreferenduma Antolatzeko Nazio Batuen Misioari (MINURSO) Marokok jakinarazi zionez, minek eta gerra- lehergailuek 2.536 biktima eragin zituen 1975etik 2012ra bitartean, 831 hildako eta 1.705 zauritu. Fronte Polisarioak, berriz, 2014ko apirilera arte kontrolpean zituen guneetan 1.413 pertsona hil edo zaurituen berri eman zuen. Minen Biktimen Saharako Elkarteak (ASAVIM) adierazi duenez, biktimen kopurua askoz handiagoa da Erruz gainditzen du 4.000 hildako eta zaurituen muga. 100 sahararretik bat minen biktima izan da; horien arteko % 90 baino gehiago gizonak dira, eta % 10 emakumeak. Bizirik atera diren biktimen heren batek anputazioak izan ditu eta % 7tik gora paralitikoak dira. Zaurituen erdiek ez zuten mina-guneetan ibiltzearen arriskuen berri. Mina ugari dago Marokok eraikitako 2.700 kilometroko hormaren luze-zabalean, zazpi eta hamar milioi mina artean erein baitzituzten.

## EZINDUAK

Espainiako Gurutze Gorriak laguntza humanitarioa ematen die errefuxiatu-kanpamenduetan dauden Hezkuntza Bereziko eta zentzumen-ezintasunak dituztenak artatzeko zentroei. 260 haur inguruk eta 15 eta 18 urte bitarteko 1.000 gazte dira programa horren onuradun. Erakunde humanitarioak astero hornitzen ditu ikasleen asteroko jana, eskola-garraiorako eguneroko erregaia eta bera arduratzen da baita altzariak konpontzeaz. Ikasleek holako edo halako adimen-urritasun eta nahasmenduak dituzte entzumenean, ikusmenean eta mintzamenean. Zentroak Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoko (SEAD) Gobernuaren Gizarte Gaietarako eta Emakumearen Sustapenerako Ministerioarenak dira. Saharako gobernua arduratzen da irakasleen soldatez.

## LURRALDE LIBERATUA

1991ko su-etenaren ostean Saharako gobernuak kudeatzen duen eremuari deitzen zaio Lurralde Liberatua, Aljeria eta Mauritaniarekiko mugan. 2.700 kilometroko harresi batek banatzen du Marokok okupatu zuen lurraldearen gainerakotik. Kalkuluen arabera, 30.000 pertsona inguru bizi dira bertan. Inguru militarizatuta, Saharako armadaren eta MINURSOko kasko urdinen babespean. Bere hirigune nagusiak Bir Lehlu, Tifariti, Meheriz, Agüenit eta Miyec dira. 1980an hasi zen Maroko harresia eraikitzen, sahararrei lurralde okupatuetara (bertan fosfato-meategiak eta kostalde zabal eta arrantzan aberatsa daude) itzultzeko aukera galarazteko. Labar-pinturen aztarnategi oso garrantzitsuak daude lurralde liberatuan.

# VISIONES SAHARAUIS

## INTRODUCCIÓN

La República Árabe Saharaui Democrática (RASD) es un Estado formado por la antigua provincia de lo que se llamó Sáhara español, ocupada ilegalmente en 1976 por Marruecos y Mauritania tras la retirada de España meses después de la muerte del dictador Francisco Franco. La RASD ha sido reconocida por 84 Estados, si bien este número varía dependiendo de la fuente consultada. Es un estado miembro de la Unión Africana. El Frente Polisario, acrónimo de Frente Popular de Liberación de Saguía El Hamra y Río de Oro, es un movimiento de liberación nacional que lucha contra la ocupación de Marruecos y persigue la autodeterminación del pueblo saharaui. Administra los campos de población refugiada diseminados por la provincia de Tinduf, al suroeste de Argelia, y los territorios liberados separados de la parte ocupada por un muro de 2.700 kilómetros. Los campamentos de refugiados  se llaman igual que las ciudades ocupadas del Sahara Occidental: El Aaiún, Auserd, Smara, Dajla, Bojador. Cada campamento es una *wilaya* o provincia y está formada por *dairas*, que son municipios. Rabuni es la capital administrativa donde se encuentra la sede  del gobierno saharaui en el exilio, varios ministerios, protocolos y administraciones de los servicios públicos.

## VIDA COTIDIANA

La mayoría de la población saharaui vive en tiendas de campañas o en casas de adobe de estructura muy frágil. Carece de agua corriente o luz eléctrica. Dependen de la ayuda internacional para subsistir que reparte el Alto Comisionado de Naciones para los Refugiados y el Programa Mundial de Alimentos. Asociaciones y ONGs solidarias con el pueblo saharaui organizan envíos de caravanas humanitarias que permiten mejorar la vida de los refugiados aunque un tercio de los niños sufren desnutrición crónica. La Media Luna Roja organiza y canaliza la cooperación y ayuda internacional. También se ocupa de atender las situaciones de emergencia. La totalidad de los niños refugiados están escolarizados.

## DESAPARECIDOS

Unos 400 saharauis han desaparecido desde principios de los años setenta en el marco del conflicto armado y la represión política llevaba a cabo por Marruecos contra la población civil bajo su control. En junio de 2013 un equipo forense descubrió dos fosas comunes en el desierto. Se trataba de víctimas de ejecuciones extrajudiciales ocurridas en febrero de 1976. Eran los primeros desaparecidos encontrados en las últimas cuatro décadas. El gobierno marroquí reconoció en 1999 que 43 desaparecidos saharauis habían muerto durante la detención. En diciembre de 2010, el Consejo Consultivo de Derechos Humanos de Marruecos publicó en internet un informe con referencia a 207 casos de desaparecidos dándoles por muertos “debido a las condiciones del encarcelamiento”,  “en medio de sufrimientos” o en “enfrentamientos militares”. Según la Asociación de Familiares de Presos y Desaparecidos Saharauis (AFAPREDESA), las informaciones proporcionadas fueron limitadas, fragmentadas e imprecisas. Tampoco se informó sobre el destino final de los cuerpos de las víctimas. La desaparición forzada es un crimen de lesa humanidad y tiene el carácter de delito permanente.

## VICTIMAS DE MINAS

Desde 1975 a finales de 2012 Marruecos informó a la Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum del Sáhara Occidental (MINURSO) de un total de 2.536 víctimas de minas o explosivos de guerra con un total de 831 muertos y 1.705 heridos. El Frente Polisario comunicó que un total de 1.413 habían muerto o sufrido heridas hasta abril de 2014 en las zonas bajo su control. La Asociación Saharaui de Víctimas de Minas (ASAVIM) señala que el número de víctimas es muy superior. El número total de muertos y heridos supera con creces los 4.000. Uno de cada 100 saharauis ha sido víctima de las minas. Más del 90% son hombres y un 10% mujeres. Una tercera parte de las víctimas sobrevivientes han sufrido amputaciones y más del 7% son paralíticos. La mitad de los heridos no tenían conocimientos de los riesgos por transitar por una zona minada. Entre siete y diez millones de minas están sembradas a lo largo del muro de 2.700 kilómetros construido por Marruecos.

## DISCAPACITADOS

Cruz Roja Española es la encargada de suministrar ayuda humanitaria a los diferentes centros de educación especial y de discapacidad sensorial que hay en los campamentos de población refugiada. Se benefician del programa unos 260 niños y unos 1.000 internados de 15 a 18 años. La organización humanitaria suministra semanalmente la dieta alimentaria del alumnado, el combustible diario del transporte escolar y la reparación del mobiliario. Las alumnas y los alumnos tienen distintos tipos de deficiencias intelectuales y alteraciones en la audición, la visión y el lenguaje. Los centros pertenecen al Ministerio de Asuntos Sociales y Promoción de la Mujer del Gobierno de la República Árabe Saharui Democrática (RASD). El gobierno saharaui  se encarga de los salarios del profesorado.

## ZONAS LIBERADAS

Se llama Territorios Liberados a la zona administrada por el gobierno saharaui tras el alto el fuego de 1991, fronterizas con Argelia y Mauritania, y está separada de la otra parte del territorio ocupado por Marruecos por un muro de 2.700 kilómetros. Se estima que unas 30.000 personas viven aquí. La zona está militarizada y protegida por el Ejercito Saharaui y los cascos azules de la MINURSO. Sus núcleos urbanos principales son Bir Lehlu, Tifariti, Meheriz, Agüeinit y Miyec. Marruecos empezó a construir el muro en 1980 con el fin de evitar el regreso de los saharauis a las zonas ocupadas donde hay minas de fosfatos y una gran zona costera rica en pesca. Existen yacimientos muy importantes de pinturas rupestres en toda la zona liberada.

VITORIA GASTEIZ green capital

montehermoso

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala